

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

#### 30/2024 Foru Agindua, abuztuaren 1ekoa, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza saileko Foru Diputatuarena, Henrike Knörr sarien 2024ko deialdia onesten duena

Arabako Foru Aldundiak 2018ko abenduan "Araban Euskara Sustatzeko 2019-2022 aldirako Plan Estrategikoa" izeneko dokumentua onetsi zuen, nagusiki euskal hiztunak eta euskal hiztunen sareak aktibatzeke eta Arabako Lurralde Historikoan euskaraz bizi ahal izateko aukera bermatzeko baldintzak sortzen jarraitzeko.

Arabako Foru Aldundiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak uste dute helburu hori lortzeko funtsezkoa dela prozesuari berari buruzko ikerketa bultzatzea, eta urtero deialdi bat argitaratzea adostu dute, euskararen erabilerari buruzko ikerketa lan monografikoak eta gradu amaierako eta master amaierako lan proiektuak sustatzeko. Henrike Knörren familiarekin batera, erabaki dute deialdiak Henrike Knörr (Tarragona 1947 – Vitoria - Gasteiz 2008) euskaltzale eta euskalariari omenaldia egitea, sariari Vitoria-Gasteizko Euskal Herriko Unibertsitateko Letren Fakultatean katedradun izandakoaren izena emanez, Arabako Foru Aldundiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren testuinguruan.

Deialdi honetan lehentasuna emango zaie master amaierako proiektuei, baina ikerketako edo gradu amaierako proiektu monografikoak ere onartuko dira, ondorengo tesiak sustatzeko, betiere ikerketa gai nagusia euskararen erabilera bada, edozein jakintza arlotatik aztertuta. Edonola ere, unibertsitateko irakasle doktore batek bermatu beharko du proiektua.

Sari hauen deialdia Diputatu Nagusiaren Sailak eman beharreko sariak arautzen dituzten oinarri orokorretan aurreikusitakoaren arabera arautzen da. Oinarri horiek Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 21eko 26/2022 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren, eta 2022ko uztailaren 11ko ALHAOn (80. zenbakia.) argitaratu ziren.

Nahitaezko txostenak azertu dira.

Horrenbestez, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatu naizenez nire eskumenekoak diren eskudantziez baliatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Henrike Knörr sarien 2024ko deialdia onestea, gehienez 4.000,00 euroko zuzkidurarekin. Deialdia eta eskatzaileek bete beharreko inprimakia eranskin gisa erantsi zaizkio erabaki honi.

Bigarrena.- Gastu hori 2024ko ekitaldira luzatutako Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 25201. G/335251/48000250 partidatik ordainduko da.

Hirugarrena.- Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Beraren aurka aukerako beraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hilabete igaro baino lehen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da

zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabete igaro baino lehen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezartzen duenaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 3a

*Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatua*  
JONE BERRIOZABAL BÓVEDA

*Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria*  
LEXURI UGARTE ARETXAGA

## I. ERANSKINA

### HENRIKE KNÖRR SARIEN 2024KO DEIALDIA

#### LEHENENGOA. Xedea

Henrike Knörr sarien xedea izango da euskararen erabilera (Arabako Lurralde Historikoan, lurralde osoan nahiz eskualde edo eremu batean) ikergai duten ikerketa-lanak sustatzea. Horretarako, master-amaierako lanen proiektuak lehenetsiko dira, baina bestelako ikerketa-lan monografikoen proiektuak ere onartuko dira, eta are gradu amaierako lanen proiektuak ere, geroko tesiak bultzatzeko helburuarekin, horien ikergai nagusia euskararen erabilera bada, nahi den jakintza-alorretik ikertua.

Sari hauen deialdia Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 21eko 26/2022 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera egiten da. Foru Dekretu horrek Diputatu Nagusiaren Departamentuaren sariak emateko oinarri orokorrak onartu zituen (ALHAO, 80 zenbakia, 2022ko uztailaren 11koa).

#### BIGARRENA. Onuradunak

Sariak lortzeko, beharrezkoa da:

a) ALHAOn argitaratzen diren egunean Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea edo bizilekua izatea, edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duen estaturen batekoa.

b) Aurreko oinarrian adierazitako gaiekin lotutako master amaierako lanen proiektuak, ikerketa-lan monografia edo gradu amaierako lanen proiektuak egiten ari diren pertsona fisikoa izatea. Nolanahi ere, unibertsitate-irakasle doktore batek bermatu behar du proiektua.

#### HIRUGARRENA. Zuzkidura ekonomikoa

2024an bi lan proiektu aukeratuko dira, eta bakoitzari 2.000,00 euroko zenbatekoa esleituko zaio.

#### LAUGARRENA. Aurrekontu-erabilgarritasuna.

Deialdi honetarako 4.000,00 euro bideratuko dira. Sarien guztizko zenbaketak ezingo du inolaz ere zuzkidura hori gainditu.

Gastu hau babesten duen aurrekontu partida Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldira luzatutako 2023ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 25201. G/335251/48000250 da.

**BOSGARRENA. Balorazio-irizpideak**

Proposamenak honako irizpide hauei jarraituz ebaluatuko dira:

1. Proiektuaren helburuak eta interesa: gehienez 5 puntu.
2. Proiektuak ekarpena egitea euskararen erabileraren biziberritzerako Araban: gehienez 5 puntu.
3. Proiektuaren ebaluazio orokorra (esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia): gehienez 5 puntu.
4. Proiektuaren garapen-maila: gehienez 5 puntu.
5. Proiektuaren egingarritasuna: gehienez 5 puntu.
6. Eskatzailearen CVa eta espediente akademikoa: gehienez 5 puntu.
7. Master amaierako lana izatea: gehienez 5 puntu.

**SEIGARRENA. Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Sari hauek eskuratu nahi dituztenek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, idatzizko eta ikusizko hizkuntza ez-sexista erabiliz:

- a) Eskabide-inprimakia, deialdi honen eranskin gisa argitaratzen den ereduaren arabera.
- b) Eskatzailearen Curriculum Vitaea.
- c) NAN, AIZ edo pasaporte (elektronikoki bidaltzen bada eskabidea, ez da beharrezkoa dokumentu hauen kopia aurkeztea).
- d) Espediente akademikoaren kopia.
- e) Proiektuaren eskema eta laburpena: ezinbestekoa da helburuak, esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia jasotzea (gutxienez 5.000 hitz eta gehienez 7.500 hitz).
- f) Unibertsitate-irakasle doktore baten berme-txostena, ikerketa-lanaren zuzendari izango dela esanez, deialdi honen eranskin gisa argitaratzen den ereduaren arabera.
- g) Proiektua balioesteko garrantzitsuak izan daitezkeen beste informazio edo dokumentazio batzuk.
- h) Proiektua deialdi honetan ezarritako epean egiteko eta entregatzeko idatzizko konpromisoa.

**ZAZPIGARRENA. Eskaerak aurkezteko tokia eta epea**

Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera egin ahal izango da eta 2024ko azaroaren 15ean amaituko da.

Eskaerak Euskara eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzako Euskararen Foru Zerbitzura bidali behar dira, eta honako hau adierazita: "Henrike Knörr SARIAK"

Eskaerak leku hauetan aurkeztu ahal izango dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra (Probintzia plaza z/g, 01001 PK) edo Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez (Erregistro Elektroniko Komuna: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/tr-erregistro-elektroniko-komuna>).
- Foru Ogasunak Vitoria-Gasteizen, Laudion eta Laguardian dituen bulegoetako erregistroan.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotako beste edozein erregistroan.

Eskaerak forma egokian aurkeztu ezean, edo deialdi honetan eskatutako agiriren bat falta bada, errekerimendua egin ahalko zaio interesdunari, hamar eguneko epean falta diren datuak eta agiriak aurkezteko. Adierazi den epean hala egiten ez badu, bere eskabideari uko egiten diola joko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da.

Pertsona berak deialdi honetako sari bakarria eskatu ahal izango du.

#### **ZORTZIGARRENA. Balorazio batzordea eta eskabideen ebazpena.**

Euskara eta Gobernu Irekirako zuzendari eskudunak izango du epaimahaiburua, eta beste ordezkari bat eskuordetu ahal izango du. Halaber, lehendakariak Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuko burua izendatuko du epaimahaiko idazkaritzarako; hitza izango du, baina botorik ez.

1. Aritu hauek balorazio batzordeko kide izango dira:

- Gidor BilbaoTelletxea (Arabako Foru Aldundiak proposatua).
- Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arriba (Araba Foru Aldundiak proposatua).
- Gema Lasarte Leonet (Euskal Herriko Unibertsitateak proposatua).

2. Adituek osaturiko balorazio batzordeak aurkezturiko curriculumak eta ikerketa-proiektua baloratuko ditu. Balorazio batzordean parte hartuko dute, hitza dutela baina botorik gabe, Arabako Foru Aldundiko Euskara eta Gobernu Irekiko Zuzendariak eta Arabako Euskararen Foru Zerbitzuaren buruak. Balorazio batzorde horrek, baremoak zehaztu ondoren, puntuazio handienetik txikienera zerrenda bat egingo du.

3. Puntuaziorik handiena lortzeagatik dotazio ekonomikoa eskuratzea merezi duten pertsonen izenak proposatuko ditu, bai eta ordezkoen izenak ere, uko egiteak edo beste edozein gertaera zuzentzeko.

4. Batzordeak elkarrizketa pertsonalak egitera deitu ahal izango ditu interesdun guztiak edo batzuk.

5. Batzordeak ez baditu egokitzat jotzen sariak eskuratu nahi dituzten eskatzaileen profila eta proiektuak, 2024an dotazio ekonomikoak (edo horietakoren bat) ez ematea proposa dezake.

6. Balorazio batzordeak sariak eman gabe utzi ahal izango ditu, osorik edo zati batean.

7. Balorazio batzordearen erabakiaren aurka ezin izango da gora jotzeko errekurtsorik aurkeztu. Erabakia batzordeko kideen gehiengo soilez hartuko da, eta batzordeak berak izango du eztabaidetan sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko ahalmena.

8. Deialdi honetako sariak ematea Berdintasuna eta Euskara eta Gobernantza saileko Diputatuaren foru agindu bidez ebatziko da, balorazio batzordearen proposamena ikusirik, zeina arrazoitua izango baita, eta amaiera emango dio administrazio bideari.

9. Ebazpen hori ALHAOn argitaratuko da.

#### **BEDERATZIGARRENA. Oinarriak onartzea**

Deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak berariaz onartzen dituzte eta bete egin behar dituzte deialdian bertan zehazten diren baldintza guztiak.

Oinarri hauetan aurreikusten ez denerako, honako hau aplikatuko da: Diputatu Nagusiaren Sailak emango dituen sariak arautzen dituzten oinarri orokorreko buruzko Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 21eko 26/2022 Foru Dekretua.

#### **HAMARGARRENA. Sariak ordaintzea**

Esleitutako sariaren zenbatekoa justifikatu beharreko aurrerakin gisa emango da, esleipen ebazpena ematen denean.

**HAMAİKAGARRENA. Onuradunen betebeharrak**

- a) Deialdi honen ohiko garapenean eragina izan dezakeen edozein egoera idatziz jakinaraztea.
- b) 2025ko irailaren 29a baino lehen amaitutako ikerketa-lana Euskararen Foru Zerbitzuan entregatzea, eta horrek balorazio batzordeari helaraziko dio, oniritzia eman diezaion.
- c) Honako hauen arabera aplikatu daitezkeen gainerako betebeharrak: Diputatu Nagusiaren Sailak emango dituen sariak arautzen dituzten oinarri orokorreko buruzko Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 21eko 26/2022 Foru Dekretua
- d) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako printzipioak eta betebeharrak betetzea.

**HAMABIGARRENA. Ikerketaren jabetza**

Arabako Foru Aldundiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak beretzat hartzen dute ikerketa argitaratu eta zabaltzeko eskubidea, indarrean dagoen legeriaren arabera lanen egiletza errespetatuz.

**HAMAHIRUGARRENA. Bateriaezintasunak**

Deialdi honetako sariak bateraezinak izango dira proiektu bererako beste edozein laguntzarekin.

**HAMALAU GARRENA. Saria itzultzea**

Oinarri hauetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoa itzuliko du, baita Diputatu Nagusiaren Sailak emango dituen sariak arautzen dituzten oinarri buruzko Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 21eko 26/2022 Foru Dekretuan ezarritako kasuetan ere.


**HAMABOSGARRENA. Publizitatea**

Deialdi hori ALHAOn argitaratuko da, eta ahal den neurrian hedatuko da gizarte-komunikabideetan.

**HAMASEIGARRENA. Azken klausula**

Oinarri hauetan xedatzen ez denari dagokionez, honako hauek arautuko dute: Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 21eko 26/2022 Foru Dekretua, Diputatu Nagusiaren Departamentuaren sariak emateko oinarri orokorrak arautzen dituena, eta, haren izaera juridikoarekin bateragarriak diren heinean, Arabako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, baita 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa, eta 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duena.

Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikora eta aplikagarri zaizkion gainerako arauetara egokituko dira.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.alava.net</p>	<p>ILERANSKINA <b>HENRIKE KNÖRR SARIAK</b> Arabako Foru Aldundiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen delaldia (2024) euskararen erabileari buruzko ikerketa-lanen, gradu-eta master amaierako lanen proiektuak sustatzeko Arabako Lurralde Historikoan</p> <p><b>2024</b></p> <p>ANEXO II <b>PREMIOS HENRIKE KNÖRR</b> Convocatoria (2024) de la Diputación Foral de Álava y la Universidad del País Vasco para la promoción de trabajos de Investigación y proyectos de trabajos de fin de máster y fin de grado sobre el uso del euskera en el Territorio Histórico de Álava</p>
--	--

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA  
SAILEKO FORU DIPUTATUA

DIPUTADA FORAL DE IGUALDAD, EUSKERA Y  
GOBERNANZA

Eskaera zk. ■ Nº Solicitud

Eskaera data ■ Fecha  
Solicitud

<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la  
Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE <sup>(1)</sup>

Eskatzaileak betetzeko ■ A rellenar por la persona solicitante

Identifikazio zk. (NAN, AIZ, besteren bat) ■

Nº identificativo (DNI, NIE, otros)

Izena eta abizenak ■ Nombre y apellidos

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■  
Núm.

Letra

Eskra. ■  
Escal.

Solairua ■  
Piso

Aldea ■  
Mano

Herrialdea ■ País

Lurraldea ■ Territorio

Udalerrria ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C.  
P.

Telefonia ■ Teléfono


Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA ■ DOCUMENTACIÓN PRESENTADA

- Eskatzailearen CVa.  
CV de la persona solicitante.
- NAN, AIZ edo pasaporte (elektronikoki bidaltzen bada eskabidea, ez da beharrezkoa dokumentu hauen kopia aurkeztea.  
DNI, NIF o pasaporte (si la solicitud se presenta electrónicamente, no será necesaria la presentación de copias de dichos documentos).
- Espediente akademikoaren kopia. ■  
Copia del expediente académico.
- Proiektuaren eskema eta laburpena: ezinbestekoa da helburuak, esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia jasotzea (5.000-7.500 hitz) ■ .  
Esquema y resumen del proyecto: es imprescindible que recoja los objetivos, el marco teórico, los antecedentes y la metodología (5.000-7.500 palabras).
- Unibertsitate- irakasle doktore baten berme-txostena, ikerketa -lanaren zuzendari izango dela esanez. ■  
Informe de garantía del profesor/a doctor/a universitario/a, declarando que es la persona que dirige el proyecto de investigación.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.alava.net</p>	<p>ILERANSKINA <b>HENRIKE KNÖRR SARIAK</b> Arabako Foru Aldundiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen deialdia (2024) euskararen erabilerari buruzko ikerketa-lanen, gradu-eta master amaierako lanen proiektuak sustatzeko Arabako Lurralde Historikoan</p>
	<p><b>2024</b></p> <p>ANEXO II <b>PREMIOS HENRIKE KNÖRR</b> Convocatoria (2024) de la Diputación Foral de Álava y la Universidad del País Vasco para la promoción de trabajos de investigación y proyectos de trabajos de fin de máster y fin de grado sobre el uso del euskera en el Territorio Histórico de Álava</p>

**BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILEKO  
FORU DIPUTATUA**

**DIPUTADA FORAL DE IGUALDAD, EUSKERA  
Y GOBERNANZA**

- Proiektua balioesteko garrantzitsuak izan daitezkeen beste informazio edo dokumentazio batzuk** ■  
Otras informaciones o documentación relevante para la valoración del proyecto.
- Proiektua deialdi honetan ezarritako epean egiteko eta entregatzeko idatzizko konpromisoa** ■  
Compromiso por escrito de realizar y entregar el proyecto en el plazo establecido en la presente convocatoria.

**JAKINARAZPENAK ■ NOTIFICACIONES**

**Jakinarazpen-sistema hautatzea (adierazi x batez jakinarazpen-modua)** ■ Elección del sistema de notificación (indicar con una x la forma de notificación elegida).

**Posta arrunta** ■ Correo postal.


<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<b>Herraldea</b> ■ País	<b>Lurraldea</b> ■ Territorio	<b>Udalerría</b> ■ Municipio	<b>Herría</b> ■ Localidad	<b>P. K. ■ C. P.</b>	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	

<input type="checkbox"/> <b>Mugikorra</b> ■ Móvil	<input type="checkbox"/> <b>Posta elektronikoa</b> ■ Correo electrónico
<input type="text"/>	<input type="text"/>

**Jakinarazpen elektronikoa (Hartzaileek Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko « nire jakinarazpenak » atalean eskuratu ahal izango dituzte jakinarazpenak)** ■ Notificación electrónica (Las personas destinatarias podrán acceder a las notificaciones en el apartado “Mis notificaciones” de la sede electrónica de la Diputación Foral de Álava).

<input type="checkbox"/> <b>Mugikorra</b> ■ Móvil	<input type="checkbox"/> <b>Posta elektronikoa</b> ■ Correo electrónico
<input type="text"/>	<input type="text"/>

Orria ■ Hoja 2/3

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava <a href="http://www.alava.net">www.alava.net</a></p>	<p>ILERANSKINA <b>HENRIKE KNÖRR SARIAK</b> Arabako Foru Aldundiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen deialdia (2024) euskararen erabilera buruzko ikerketa-laneri, gradu-eta master amaierako lanen proiektuak sustatzeko Arabako Lurralde Historikoan</p>
	<p>2024 ANEXO II <b>PREMIOS HENRIKE KNÖRR</b> Convocatoria (2024) de la Diputación Foral de Álava y la Universidad del País Vasco para la promoción de trabajos de investigación y proyectos de trabajos de fin de máster y fin de grado sobre el uso del euskera en el Territorio Histórico de Álava</p>

**BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA  
SAILEKO FORU DIPUTATUA**

**DIPUTADA FORAL DE IGUALDAD, EUSKERA Y  
GOBERNANZA**

#### ESKATZEN DU/SOLICITA

2024 Henrike Knörr sariaren deialdian parte hartzea./La participación en la convocatoria de los premios Henrike Knörr 2024.

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Sinadura ■ Firma

Oharra (1)  
Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betez, parte-hartzaileek emandako datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiaren EUSKARA SUSTATZEKO T67 fitxategian sartuko dira. Arabako lurralde historikoan euskararen erabilera sustatzeko jarduerak kudeatzeko sartuko dira. Datu horien konfidentzialtasuna bermatuko da, eta ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, legez baimentzen diren kasuetan izan ezik. DBEOk onartzen dituen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezereztzeko, aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroko bulegora joz (Probintzia plaza 5, PK 01001, Vitoria-Gasteiz - Araba). Informazio gehiago: <https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>

Nota (1)  
En cumplimiento de lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016 (RGPD) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, los datos personales aportados por las personas participantes se incluirán en el fichero T67 PROMOCIÓN DEL EUSKERA de la Diputación Foral de Álava. Se incorporarán para gestionar actividades de fomento del uso del euskera en el territorio histórico de Álava. Se garantizará la confidencialidad de estos datos y no se comunicarán a terceros, salvo en los casos en que se autoricen legalmente. Podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación, oposición y limitación del tratamiento reconocidos por el RGPD, dirigiéndose a la oficina del Registro de la Diputación Foral de Álava (Plaza de la Provincia 5, CP 01001, Vitoria-Gasteiz -Araba). Más información en: <https://web.araba.eus/es/web/araba/aviso-legal-ampliado>.